



BEN WHEATLEY APARECE MIENTRAS SE ESTRENA SU FILM

El director británico Ben Wheatley apareció ayer por la tarde junto a las estrellas de su nueva película, "High-rise", que se presentaba justo a la misma hora en el Teatro Principal. Se trata de una de las películas más deseadas de la Sección Oficial y la cola así lo reflejaba.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



ZHAO TAO Y JIA ZHANGKE LLEGAN SIN MUCHO RUIDO

La actriz china Zhao Tao llegó ayer a Donostia junto al director Jia Zhangke hacia las 15.00. Sus nombres, no tan conocidos por esta zona, no atrajeron a muchos curiosos. Presentarán mañana "Shan he gu ren", que compitió en el Festival de Cannes.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS



BEGO ZUBIA

«SAGARDOA BIDE GILE» DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

Hiru urte eman dituzte Bego Zubia eta bere lantaldeak «Sagardoa bide gile» dokumentala osatzen. Elhuyar eta Pixel-en produkzio honek sagardogintzaren sustraietatik egungo produkzio modernorainoko bidea aztertzen du, eta sagardotegi eredu ezberdinak ere ematen ditu ezagutzera.

«Sagardoaren inguruko aurreiritziak iraultzeko balio izan digu lanak»

Amaluz ARTOLA | DONOSTIA

Nola sortu zen proiektua?

Ez da proiektu pertsonala izan. Elhuyarren egiten dut lan, "Teknopolis" saioko lantaldean, eta denei bezala krisiak ere guri eragin digunez, bide berriak jorratu behar direla pentsatu genuen. Guk ikus-entzunezkoak egiten dakigunez, dokumentalgintzan pentsatu eta bazkari batean sagardogintzaren gaia irten zen. Ikertzen hastean, sagardoari buruz ikus-entzunezko formatuan azken urteetan ezer gutxi egin zela ikusi genuen eta sagardogileak ere laguntzeko prest zeudenez, gaiari heldu genion.

Orain artean ze harreman duzu sagardoaren munduarekin?

Badira 23 urte Hernanin bizi naizela, baina sagardotegi garaian bazkaltzera joatea, hori da nik sagardoaren munduarekin eduki dudana harremana. Baina proiekturako hori ez da txarra izan, zer atera nahi genuen aurrez erabaki beharrean, gure ideiak aurkitzen genuenera egokitu ditugulako.

Sagardoa zonalde jakin batekin, txuleta eta parrandarekin lotzen du askok. Aurreiritzi horrikin hautsi nahi izan duzue?

Zerranda horri "gizonen mundua" ere gehituko nioke nik. Lanean aritu garenontzat ezuste handia izan da sagardoa garai batean zeinen erroto eta za-



Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

baldua zegoen ikustea, euskal baserritarrek sagardorik gabe ezin zirela bizi jakitea; sagardoa izan zen baserri egituraren sorreraren arrazoia. Bestetik, aldaera handia izan du eta egun produkzio moderno bat ere bada, eta gizon eta emakumeek zuzentzen dutena gainera. Ez da kasualitatea egun dauden sagardoaren bi elkarte-etako presidentek emakumeak izatea.

Sagardotegietan ere denetik dago, asteburuko parrandara datozen kuadrillak eta urteko igande guztietan sagardotegira bazkaltzera doazen bikoteak. Gu hori guztia erakusten ahalegindu gara, badagoela gureak aurreiritziak besterik ez direla frogatzen duen errealtate bat.

Zelako datuak topatu dituzue?

Nabigazioan izan zuen garrantzia aipatzen dugu, adibidez. Na-

GIZONEN MUNDUA

«Ez da kasualitatea egun dauden sagardoaren bi elkarte-etako presidentek emakumeak izatea»

bigazio luzeetan sagardoa eramanen zuten, ura usteldu egiten zelako eta akuifero asko kutsatuta zeudelako, komuneko hondakinak eta animaliak ere hara joaten zirelako. Halako datuek gure iraganari buruz ze gutxi dakigun erakusten digute.

Grabaketa kanpoan ere egin duzue, AEBetan esaterako.

Sagardoa ez dela Hernani eta Astigarragan bakarrik egiten

erakusten ahalegindu gara. Iparraldeko kooperatiba batean izan gara, Bizkaiko baserri batean... sagardotegi eredu ezberdinak erakusteko. Eta AEBetan ere izan gara, New York eta Bostonen. Sagardogileek oso garbi dute euren merkatu naturala Euskal Herria eta ingurua dela, baina krisiak haiei ere eragin die, txotxak garai hobekak izan ditu eta produkzio guztia saltzeko kanpora joateko saiakerak egiten ari dira. Une honetan AEBetan sagardoa eskaria asko igo da, eta euskal sagardoarentzat nitxo bat egon daitekeela pentsatzen dute. New Yorken, Ermuan familia duen tabernari batekin egon ginen, eta Bostonen, bertako sagardo inportatzaile batekin. Kasualitatez euskal sagardoa deskubritu eta maiteminduta geratu zela kontatzen du. Hango sagardo edaleak, gainera, gazteak eta ekonomikoki ondo daudenak direla ikusi ahal izan genuen.

«Teknopolis» telebista saioko zuzendaria zara. Zientzia ere presente egongo dela aurreikusi behar duzue?

Laborategiren batean izan gara eta sagarraren inguruan egiten ari diren ikerketa batzuk ere aipatzen ditugu, sagarra ondo ezagutzeko gero sagardogile bakoitzak nahieran egokitutako produktua egiteko aukera izango duela pentsatzen baita.

Culinary Zinemaren barruan estreinatuko duzue.

Kontu honekin hasi ginenean, Culinaryn aurkezteko helburuarekin egin genuen lan eta asko poztu gaitu helburu hori betetzeko. Erakusleho bat da, eta kalitatearen bermea ere ematen digu. Txotx denboraldiarekin batera herrietatik bira txiki bat egiteko asmoa dugu, AEBetan ere badute interesik eta Zinemaldiak beste jaialdi batzuetara zabaltzeko aukera ere ematen digu. Horren ostean, ETBn ere emango da dokumentala.